



the killministers

NIGHT CITY BREAKERS

Estresa, zarata eta jendetza. Hainbat eta handiagoa izan hiria gero eta ugariagoak dira nolakotasun hoiek. Gaua heltzerakoan ordea hiriak erabat aldatzen du bere nortasuna, utzik dagoen leku lasai eta isil batean bilakatzeko; baina, zerk apurtu dezake gaua? "night city breakers" leloari helduta gaua erabat apurtzeko asmoa daukate The killministers taldekoek. Ba al dago musika eta rocka baino hobeagorik gaua guztiz hausteko?

70.hamarkadan oinarritutako taldea da The killministers: The Clash, The Animals...ez dakit, garaiak aldatzen joaten dira, baina musika ona betiko geratzen da. Gitarra zorrotz eta garbi batzuk, presentzia handia duen baxu batekin uztartzen dira, garai haietan hamond teklatuak sortzen zituzten soinu bereizgarri haiek, Etorrek abesteko duen era bereizgarriarekin batzen da, 70.hamarkadako rock klasiko hura gaur eguneko talde batek sortarazten du, The Killministers.

Letren arloari dagokionez, mundu kaotiko baten historiak kontatzen dizkigute, nor bere burua kaos horren barruan murgilduz, erotasun puntu batean sentitzen delarik, KILLMINISTERS!! esaten dute, probokatzeko era garbia legez...

2.000.urtean jaio zen talde hau. Ordura arte, Galipot izeneko taldean aritu ziren Etor eta Iraultza, Arnal eta Alesekin bat egin ondoren, The Killministers proiektu berria aurrera eramatea erabakitzen dute. Bakioko laukote honek, urte horretan eman zuen lehenengo kontzertua eta beraien lehenengo maketa ere urte honetan grabatu zuten. 2.005.eko apirilean, bost abestiko maketa interesgarri bat ateratzen dute, eta honen ondorioz Euskadi Gazteko maketa lehiaketaren finalista suertatzen dira.

Honen ondorioz, baga-bigaren eskutik kaleratzen dute eskuartean daukagun beraien lehenengo CD berri hau, "night city breakers", Beran (Nafarroan) "Mik" estudioetan grabatua izan dena Jose Lastra teknikariaren eskutik, masterizazioa ordea, Mungian (Bizkaia) "Lamina Produksioak" estudioan burutu da.

.....*We are a night city breakers! Are you?*.....

Etor Duandikoetxea: Kitarra eta ahotsa / **Arnal Larrazabal:** Bateria eta koroak
Iraultza Bilbao: Baxua eta koroak / **Ales Larrazabal:** Teklak



baga-biga musika ideiak
221 Posta Kutxa - Mungia 48100 Bizkaia
tel. 618 072 076 / 026
info@baga-biga.com www.baga-biga.com